Ni, bertsolari

Nahia Aldamizetxebarria

Hegazkina lur hartzeko zorian dago oraintxe bertan. Ordu eta erdi hau oso gustora egon naiz, nire ondoko eserlekuan dagoen emakumearekin hizketan. Ez dakit zergaitik, baina nire barruan, zerbaitek esaten dit luzaroan ikusiko dudan emakume britaniar bakarra izango dela…… Nire maleta guztiak bildu ditut eta taxi geltokira abiatu naiz korrika bizian.

- Stop taxi, stop! – esan dut ohiuka, nigandik hurbil ikusi dudan kotxe zuri batean jarriz.

Gutxi gorabehera 50 urteko gizon batek kotxwra igotzeko keinua egin dit. Ahoan, pintxoetarako erabiltzen diren makiltxo horietako bat du eta alde batetik bestera mugitzen dabil etengabe. Kotxera nire maleta guztiak igotzen dituen bitartean nik Loiuko aireportua aldez-alde aztertu dut, ondoren, kotxearen atea zabalduz batera bi eskuak bata bestearen kontra jarri eta behin eta berriz igurtzi ditut, " negua al da Londresetik itzultzeko urtarorik aproposena?". Galdera hau nire burua osatzen duten hormetan pilota bat balitzan ibili da, bueltaka.

Getxora joan nahi dudala esan ondoren, nire mobilean musika ipini dut eta nire jaiotzako herrira lehenbailen iristeko asmoz, bizkorrago joateko esan diot gidariari. Azkenean, han gaude, nire antzinako etxearen aurrean. Arineketan kotxetik gauzak bildu ditut eta ate joka hasi naiz, azkenean zabaldu didaten arte. Eskailerak gora igotzerakoan pentsatu dut: " amak ingeleraz hitzegiten ikasi du? Seguru baietz, asko ezagutzen nau. 5 urtez zehar euskaraz zipitzik hitz egin gabe igarotzerakoan, azkenean hizkuntza ahaztu egin zaidala jakiteko". Etxera sartu naiz eta familia guztia han ikusi dut, nire zain.

- We miss you ¡!!!!!- esan dit amak. Nire teoria baieztatu dut, nirekin harremanetan eta hizketan jarraitzeko ingeleraz hitz egiten ikasi du azken bost urte hauetan, nire ama maiteak.

Bakoitzari muxu bana eman eta urte luze hauetan gertatutako historia zein pasadizuak kontatu dizkiogu elkarri. Jende guztia etxera joan da baina aitak berriz, nirekin hitz egin nahi izan du. Amaren laguntzaz, esan dit badakiela euskaraz hitz egitea erabat ahaztu zaidala, eta oraingoan beste eran batez erakutziko didala hizkuntza:



Bertsoen bidez

Harrituta geratu naiz hasieran, baina gero nire buruan guztia irudikatu dut. Ez dut usten hain zaila izango denik, hala ere bihar goizeko 10etan nire lehenengo saioa emango dut aitaren laguntzaz. Goizeko bederatzi terdiak dira, berehala jantzi naiz eta amak prestatutako tarta goxoa dastatu bitartean ordularia begiratu dut. Oh ez !!!

Hamar minututan aitaren tailerrean egon beharko naiz. Gauzak prestatu eta tira, lehenengo eguna denez, ez naiz berandu iristeko gai izango….. Edo bai? Korrika bizian aitaren tailerrean sartu naiz (han zegoen, nire zain) eta bertsoak zer diren azaldu dit. Gero errima taula egin dugu eta horrekin, bi orduz, bertso kaxkar batzuk osatzen ibili naiz. Aitak azaldu dit, nola berak, aintzina batean bertsoak buruz egiten zituen, bizkor-bizkor.

Hurrengo sei hilabeteak antzekoak izan dira, baina egun hortatik aurrera euskaraz ondo hitz egiten ikasi dut, hitz egokiak erabiltzen……. Bertso ederrak sortzen ditut eta aitarekin batera bertso ekitaldi eta lehiaketetara joaten naiz maiz. Bertsoen bidez euskara ikastea errezagoa dela iruditzen zait orain, lehen ordea piperrik ere ez nuela ikasiko pentsatzen nuen. Uste dut urte erdi barru Bizkaiko txapelketan izena emango dudala, baina horretarako, aurrerantzean egunero egunero lau orduz praktikatzen ibili beharko dut.

Heldu da ordua, guztia emango dut orain, hemen.

Azken bertsoa abesteko prest nago; AGURRA. Edozein gai aukera dezaket, norbait eskertzeko edota agurtzeko, soil-soilik.

- Mikel Barrenetxea aurrera! – esan du mikroa eskuan duen gizon lodi batek.

Pausu bat aurrera eman eta bertsotan hasi naiz poliki-poliki, lasai. Azken bi bertsoetara iristerakoan horrela esan dut:

Londresera bidaiari

Eskerrak eman lanari

Ta ni hirira joateko asmoz

Lortzeko hainbat mirari

Bihurtu naiz bertsolari

Ta hemen nago kantari

Laster egin beharko dizkiot

Mila mesede aitari

Ez dut irabazi, ez, baina niretzat irabaztea ez da norbaitek zuri domina bat ematea, baizik eta egin duzun esfortsuaren ondorioz, zure helburua lortzea.

Ni, Londresen lanaren ondorioz 5 urte igaro dituen mutil bat naiz, han hainbeste denbora igaro nuen euskara erabat ahaztu zitzaidala eta hemen, nire aita maiteak, bertsoen bidez, nire hizkuntza zaharra menperatzen irakatzi dit.

NORK ESANGO LUKE BERTSOLARI IZATERA HELDU AHALKO NINTZENIK?